1. **EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN BATASUNAREN KIROL ARBITRAJERAKO EUSKAL EPAITEGIAREN ARBITRAJEAREN MENPE JARTZEKO KLAUSULA**

(Erakundearen estatutuetan edo Eusko Jaurlaritzaren ereduetan sartu beharrekoa)

Erakundearen eta elkartekideen artean edo erakundearen beraren jardueraren esparruan sortzen diren auziak, baita likidazio-aldian ere, eta zuzenbidearen arabera alderdien arteko xedapen askeko gaiei buruzkoak badira, nahitaez aurkeztu beharko zaizkio Euskal Kirol Federazioaren Batasunaren KIROL ARBITRAJERAKO EUSKAL EPAITEGIARI, adiskidetze-bideak agortu ondoren, Euskal Kirol Federazioaren Batasunak ...(e)an onartutako Erregelamenduaren arabera; eta alderdiek berariaz hitz emango dute arbitraje horren ondoriozko laudoa beteko dutela. Nolanahi ere, Kirol Arbitrajerako Euskal Epaitegiaren eskumenerako, parte hartzaileekin, bezeroekin edo elkartekide ez diren hirugarrenekin edo entitateekin erakundearen jardueren inguruan izaten diren gatazkei dagokienez, horiek berariaz onartu beharko dira, zuzenbidean baliozkoa den edozein dokumenturen bidez.

2. **EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN BATASUNAREN KIROL ARBITRAJERAKO EUSKAL EPAITEGIAREN ARBITRAJEAREN MENPE JARTZEKO KLAUSULA**

(Kontratuetan, inskripzioetan, lizentzietan, babesletzetan, hirugarrenekiko edo erakundeekiko harremanetan... sartu beharrekoa)

Kontratu honen ondorioz sortzen diren auziak, adiskidetze-bideak agortutakoan, Euskal Kirol Federazioaren Batasunaren KIROL ARBITRAJERAKO EUSKAL EPAITEGIAREN arbitrajearen mende jarriko dira, betiere organo horrek eskumena badu gai horiek ebazteko, eta alderdiek berariaz hitz emango dute arbitraje horren ondoriozko laudoa beteko dutela.